

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onartzea zerga ordenantzen aldaketa

Ondoren aipatzen diren ordenantzak aldatzeko Udaltzak 2016ko urriaren 4an egindako ohiko bilkuran onartutako behin-behineko erabakia jendaurrean edukitzeko epea amaitu da, alegia, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza, autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santi Kurutze Kanpezun berariaz atondutako aparkalekuan aparkatu eta gaua igarotzearen udal ordenantza, eta zerbitzu publikoak eta administrazio jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza. Beraz, nola eta epe horretan ez den erreklamaziorik bat ere aurkeztu, erabaki hori behin betiko onartuta geratzen da, 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikulua (41/1989 Foru Araua, uztailearen 19koa, Toki Ogasunak arautzen dituena) eta 7/1985 Legearen 49.c) artikulua xedatutakoaren arabera (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena).

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, oso-osorik argitaratzen dira aldaketen eta ordenantza berriaren testuak:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Eranskina

Tarifak

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA, EUROTAN
A) Turismoak:	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	19,61
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	52,95
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	111,78
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	139,22
20 zaldi fisikaetik aurrera	174,03
B) Autobusak:	
21 plaza baino gutxiago	129,45
21 eta 50 plaza bitartean	184,33
50 plaza baino gehiago	230,42
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarria 1.000 kilogramo baino gutxiago	65,68
Zama erabilgarria 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	129,45
Zama erabilgarria 2.999 eta 9.999 kilogramo bitartean	184,33
Zama erabilgarria 9.999 kilogramo baino gehiago	230,42
D) Traktoreak:	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	27,45
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	43,13
25 zaldi fiskal baino gehiago	129,45
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoi eta erdiatoiak:	
Zama erabilgarria 1.000 eta 750 kilogramo bitartean	27,45
Zama erabilgarria 1.000 eta 2.999 kilogramo bitartean	43,13
Zama erabilgarria 2.999 kilogramo baino gehiago	129,45

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA, EUROTAN
F) Bestelako ibilgailuak:	
Ziklomotorrak	8,39
125 cm ³ -ra arteko motozikletak	8,39
126 eta 250 cm ³ bitarteko motozikletak	11,77
251 eta 500 cm ³ bitarteko motozikletak	23,53
501 eta 1000 cm ³ bitarteko motozikletak	47,08
1.000 cm ³ baino gehiagoko motozikletak	94,13

Udalaren ordenantza, arautzen duena autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak Santikurutze Kanpezun berariaz atondutako eremuan aparkatu eta gaua ematea

6. artikulua. Zerbitzuguneak

6. Autokarabanak udalaren jabetzako zerbitzugune eta birziklatze guneetan sartu eta han eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa, bestalde, ordenantza honen tarifen eranskinean dago jasota.

Tarifen eranskina

3 euro eguneko

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza

6.2.2 Tarifak.

Mantentze gimnastika, pilates, aerobic, zumba, gap edo beste edozein jarduera, tarifa be-rezirik gabea:

Erroldatuak: 39 euro hiruhileko bakoitzeko.

Erroldatu gabeak: 44 euro hiruhileko bakoitzeko.

6.3.2 Tarifak:

1. Urteko abonamendua

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduak	36 euro	43 euro
Haurrak	25 euro	31 euro
Erretiratuak	25 euro	31 euro

Hilabeteko abonamendua

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduak	21 euro	28 euro
Haurrak	15 euro	21 euro
Erretiratuak	15 euro	21 euro

2. Igerilekuko sarrera

Helduak: 4 euro/pertsona/egun

Haurrak: 3 euro/pertsona/egun

Erretiratuak: 3 euro/pertsona/egun

3. Aplikazio arauak:

- a) Bost urte edo gutxiago dutenek ez dute tasarik ordainduko.
- b) Tasaren ordainketa dela eta, haur tarifa 6 eta 15 urte bitartekoek, horiek barne, ordainduko dute.
- c) Tasa ordainduko da udalaren diru kutxetan bertan diru sarrera eginez
- d) Tarifak aplikatzearen ondorio diren kuotak ezin dira ez denboran luzatu, ez eta murriztu ere, eta ordainagiri bidez kobratuko dira.
- e) Abonamenduak udal bulegoetan jaso ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik, 9:00etatik 14:00etara.
- f) Abonamenduak egiteko, nahiz urte osokoak nahiz hilabetekoak, ezinbestekoa da karnet tamainako argazki bat.
- g) Hilabeteko abonamendua egiteko, hilabete bateko tartea utzi beharko da, data batetik bestera artekoa.

Santikurutze Kanpezu, 2016eko abenduaren 7a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO